

GOIERRIKO EKIMENA, S.A.REN

KONTRATAZIOARAKO BARNE JARRAIBIDEAK

1. XEDEA

GOIERRIKO EKIMENA, S.A. (aurrerantzean, GOIEKI) sektore publikoaren barruan dago Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratua (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.1.d) artikulua araberaren arabera, eta “botere esleitzaitzat” jotzen da lege bereko 3.3.b) artikuluan adierazitakoaren arabera.

Kontratazioarako barne jarraibideek (aurrerantzean, KBJ) honako helburu hau dute: erregulazio harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak esleitzeko, GOIEKIren barne prozedurak arautzea, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, eta kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duenari esleitzeko, SPKLTBko 191.b) artikuluan xedatutakoa betez.

KBJak onartuta geratu ziren Akordio bidez GOIEKIren Administrazio Kontseiluan 2016ko ekainaren 10eko batzarrean, onartuak izan diren egun horretan bertan sartuko dira indarrean, eta egun horretatik aurrera abiarazten diren kontratazio-espeditenteei aplikatuko zaizkie.

GOIEKIren barne esparruan, nahitaez bete behar dira barne jarraibide hauek. Era berean, horien bidez arautzen diren kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duten guztien eskura jarri behar dira jarraibideok, eta GOIEKIren “Kontratzaile Profilean” publikatu.

2. KBJ-EN INTERPRETAZIOA

Barne jarraibideak betetzeari dagokionez, inisial larrien bidez ezartzen diren terminoek jarraibideetan bertan definitutako esanahia izango dute, eta jarraibideetan definitzen ez direnek, berriz, SPKLTBan termino horiei ezarritako esanahi bera izango dute.

Barne jarraibideen ondorioz SPKLTBko agindu bat egokituta aplikatu behar denean, edo ez bada osorik edo partzialki aplikatzekoa, ulertu behar da (barne jarraibideen arabera) aplikatzekoak diren SPKLTBko beste artikulua batzuek agindu horretara jotzeko egiten dituzten oharrek egokitze edo ezeztatze horiekin egin behar direla.

Kontratuen balio zenbatetsia SPKLTBko 88. artikuluan aurrez ikusitako arauen arabera kalkulatu da, eta ez du Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartuko.

Barne jarraibide hauetako 9. atalean aipatzen den zenbatekoa (SPKLTBko II. eranskinetako

17 eta 27 mailen artean jasotako zerbitzuei buruzkoa) eta GOIEKIk egindako kontratuak erregulazio harmonizatuari loturik daudela ezartzen duten zenbatekoak Europako Batzordeak ezarritako zenbatekoen arabera eguneratuko dira, SPKLTBko hamaikagarren xedapen gehigarrian aipatzen denaren arabera.

3. APLIKAZIO EREMUA

KBJak GOIEKIk egiten dituen kostu bidezko kontratu guztiei aplikatuko zaizkie, honako hauei izan ezik:

- a) SPKLTBren 4. artikuluan jasotako negozio eta harreman juridikoak.
- b) SPKLTBko 13. artikuluen eta honekin bat datozen artikuluen arabera erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak, horien esleipenak SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.
- c) Erregulazio harmonizatuaren mende dauden diruz lagundutako kontratuak, SPKLTBren 17. artikuluen eta honekin bat datozen artikuluen arabera; izan ere, kontratuen esleipenak SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.
- d) Arlo jakin bateko araudiak araututako edo berariaz salbuetsitako kontratu eta negozioak, araudi horretan xedatutakoaren arabera esleituko baitira.

4. KONTRATAZIOAREN PRINTZIBIO OROKORRAK

KBJak aplikatu behar zaizkien kontratuak SPKLTBko 1. artikuluan jasotako printzipioak jarraitu beharko dituzte, eta, edonola ere, horien esleitzea publizitate, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen mende dago, SPKLTBko 191. artikuluen arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioak betetzen direla bermatzeko, GOIEKIk barne jarraibideen arabera izapidetzen dituen kontratazio-prozeduretan, kontratazio-organoen jarduna beti bideratuko da gorago aipaturiko printzipioak betetzera.

Printzipio horiek betetzat joko dira, KBJen ondoko ataletan jasotako arauak betetzen direnenan. Horiek aplikatzeko eta interpretatzeko ondoko gidalerroak kontuan hartuko dira:

(a) **Publizitate printzipioa** betetzat joko da, GOIEKIk kontratuei buruzko informazioa eta merkatua lehiari zabaltzeko aukera ematen duten hedatze- eta jakinarazte-bitartekoak aplikatzen direnean, lizitatzailerik izan daitezkeen guztien mesedetan.

(b) **Gardentasun printzipioa** betetzat joko da, kontratua esleitu aurretik, informazio egokia hedatu eta jakinarazten denean, lizitatzailerik izan daitezkeen guztiei lizitazioan parte hartzeko interesa dutela adieraz dezaten. Era berean, printzipio horrek honako bi alderdi

hauek dakartza berekin: batetik, parte-hartzaile guztiek aukera izan behar dute aurretik jakiteko esleitu nahi den kontratuari aplika dakizkiokeen arauak, eta, bestetik, segurtasun osoa izan behar dute arau horiek enpresa guztiei modu berean aplikatzen zaizkiela.

(c) KBJ hauen arabera, lizitatzailerik izan daitezkeen sarbidea eta parte-hartzea errazteko behar diren neurriak hartuko dira, kontratua eskaintza ekonomiko onuragarrienari esleitzeko.

(d) **Konfidentzialtasun printzipioa** betetzeko, GOIEKIk bere gain hartuko du obligazio hau: enpresaburuek eman duten informaziorik ez zabaltzea baldin eta enpresaburuek isilpekotzat jo badute, betiere horretarako arrazoi justifikaturik badago, eta, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialik eta eskaintzen aspektu kondifentzialik badago. Era berean, printzipio honen aplikazioak kontratistek kontratua gauzatzen den bitartean eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu behar izatea eragingo du, baldin eta informazio hori konfidentzialtzat jo bada pleguetan edo kontratuan, edo informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar bada.

(e) **Berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa** bermatzeko, prozedurak alderdikierarik gabe eta zuzentasunez egingo direla bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. Neurri horien artean, honako hauek egongo dira gutxienez:

(i) Kontratuen helburua bereizkeriarik egin gabe deskribatuko da beti, fabrikazio eta jatorri jakin baten aipamenik egin gabe, ez produktu partikularrei, ez marka, patente, mota, jatorri edo produkzio jakin bati aipamenik egin gabe, salbu-eta halako aipamenen bat egitea behar bezala justifikatzen denean eta aipamen "edo baliokide" batek lagunduta dagoenean.

(ii) Ez da zuzeneko zein zeharkako bereizkeriarik eragingo duen inolako baldintzarik ezarriko, Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetatik parte har lezaketen lizitatzailerik aurrean.

(iii) Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako egiaztagiriak aurkezteko eskatzen bazaie, beste Estatu kide batzuetako agiriak onartu egin beharko dira, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diplomak onartzeko printzipioaren arabera.

(iv) Interesa adierazi edo eskaintza bat aurkezteko ematen diren epeak egokiak izango dira, beste Estatu kide batzuetako enpresek behar bezalako ebaluazioa egin eta eskaintza bat aurkezteko modua izan dezaten.

(v) Esleitze prozedura baterako lehiari hornitzaile edo zuzkitzaile bat baino gehiago aurkezten direnean, GOEIKIk lizitatzailerik guztiek kontratuaren gaineko informazio bera dutela eta badintza bertsuetan jasotzen dutela bermatuko du.

5. KBJ-EK ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA HORIEI APLIKATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOAK

GOIEKIk egiten dituen kontratuak kontratu pribatutzat jotzen dira, SPKLTBko 20.1 artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera.

6. KONTRATAZIO ORGANOAK

Kontratazio organoak, kasu bakoitzean Estatutuetan xedatutakoaren arabera eta GOIEKIri aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera zehaztuko dira, beste organo batzuei modu egokian eskuordetza edo ahalordea ematearen kaltetan izan gabe.

7. KONTRATUA EGITEKO GAITASUNA

GOIEKIrekin kontratua egin ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gutxieneko gaitasun eta kaudimen eskakizunek, kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute, eta xede horrekiko proportzionalak izan beharko dute.

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzekoak diren SPKLTBren xedapenez gain, kontratatzeke kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren egiaztapena, dagokion lizitazioan zehazten denaren arabera egingo da kasu bakoitzean, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuz, eta SPKLTBren 75-79. artikuluetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, kontratazio organoak egoki irizten badio.

Era berean, SPKLTBren 65.5 artikuluari jarraiki, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuz, kasu bakoitzean enpresaburuaren kaudimena dagokion sailkapenaren bitartez egiaztatzea eskatu ahal izango da.

Enpresaburuak bete beharreko gutxieneko kaudimen eskakizunak eta eskatutako egiaztagiria lizitazio iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren gaineko agirian zehaztuko, KBJ hauen arabera eskatzeko modukoak izanez gero.

8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

Kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, kontratazio organoak bermea emateko eskatu ahalko die lizitatzailerik edo hautagaiei, esleipena egin bitartean euren

eskaintzen iraupenaren ardura har dezaten. Horrez gainera, esleipendunari bermea eskatu ahal egingo zaio, prestazioa egoki gauzatzen dela ziurtatzeko.

Berme horren zenbatekoa, eta baita bermea itzultzeko edo ezerezteko araubidea ere, kasuan-kasuan ezarriko da, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Eskatzen diren bermeak SPKLTBren 96. artikuluan aurrez ikusitako moduetakoren batean aurkeztu ahal izango dira.

9. KONTRATUAK PRESTATZEA

KBJek aipatzen dituzten kontratuak prestatzeko, zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, agiri bat egin beharko da eta, bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak jasotzeko moduak, esleipenirizpideak eta, hala balegokio, lizitatzailleek edo esleipendunak jarri beharreko bermeak.

Agiriak hurrengo edukia jasoko du:

- Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak: kontratuaren xedea.
- Oinarritzko lizitazio aurrekontua. Kontratuaren prezioa.
- Kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, luzapenak.
- Kontratua esleitzeko prozedura.
- Eskaintzak aurkezteko modua eta epea.
- Aldaerak onartzeko araubidea
- Kontratatzen gaitasuna eta kaudimena egiaztatzea.
- Esleitzeko irizpideak eta horien haztapena.
- Ondasuna edo zerbitzua eman edo egiteko lekua eta epea.
- Hala balegokio, lizitatzailleek edo esleipendunak jarri beharreko bermeak.
- Ordaintzeko era.
- Lagatzeko eta azpikontratatzeko aukerak.
- Lan kontratuetan subrogatzeko baldintzak.

- Atzerapenen ondoriozko zigorrak.

10. KONTRATISTA AUKERATU ETA KONTRATUAK ESLEITU

10.1. Kontratu mailak

KBJ hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzaren esleipenari aplikatzekoak diren prozedura eta baldintzak ezartzeko, honako zenbatekoaren arabera kontratu maila hauek daude:

(a) **1. maila.** Maila honetan sartzen dira 18.000 eurotik (BEZ kanpo) gorakoak ez diren kontratuak, edonolakoak izanik ere.

(b) **2. maila.** Kontratu hauei estimatzen zaien balioa honako zenbateko hauen artean dabil: 18.000 eurotik 50.000 euro arterainokoak (BEZ kanpo).

(c) **3. maila.** Kontratu hauei estimatzen zaien balioa honako zenbateko hauen artean dabil:

- 50.000 euro edo hortik gorako kontratuetatik hasi eta 5.225.000 euro arterainokoak (BEZ kanpo), obra kontratuen kasuan.
- 50.000 euro edo hortik gorako kontratuetatik hasi eta 209.000 euro arterainokoak (BEZ kanpo), zerbitzu eta hornidura kontratuen kasuan.

10.2. Publizitatea

Kontratuak iragartzeari dagokionez, 50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuei publizitatea egin behar zaie, eta publizitate horretan lizitazioari buruzko informazioa sartu behar da GOIEKIren kontratatzailearen profilean. Dena den, zabalkunderako bitarteko gehigarriak erabili ahal izango dira kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa dela ikusten bada.

Lizitazioari buruzko iragarkiak honako informazio hau jasoko du:

- (a) Kontratuaren funtsezko xehetasunen gaineko deskripzio labur bat.
- (b) Kontratua esleitzeko prozedura, eskaintzak aurkezteko epea adieraziz, hala badagokio.
- (c) GOIEKIrekin harremanetan jartzeko gonbidapena, informazio gehigarria lortzeko.

Nolanahi ere den, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta komenigarria

irizten bazaio, kontratatzailearen profileen iragarkiaren edukia zabaldu edo informazio gehigarria sartu ahal izango da.

Era berean, kontratuaren enpresa esleipenduna kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa betetzeak ez du eragotziko, SPKLTBko 170-175 artikuluetan jasotako prozedura negoziatua aplikatzen den kasuetan, publizitateari uko egin ahal izatea, lege testu bereko 177 artikuluan adierazitakoaren arabera, kasu horiek ez badute publizitatearen printzipioa bete behar.

10.3. Esleitzeko prozedura

(a) 1. mailako kontratuak.

Maila honetan sartzen diren kontratuak zuzenean esleituko dira.

Kontratazioaren arduradunak aurrekontu bat eskatuko du. Gerenteak oniritzia emango du eta enpresa horri esleituko dio zuzenean.

Halako kontratuak esleitzeko, nahikoa izango da espedientean jasota egotea aurrekontua oniritziarekin eta dagokion faktura.

(b) 2. mailako kontratuak.

Maila honetako kontratuak arau hauen arabera esleituko dira:

(i) Ahal denean, kontratua gauzatzeko gai diren hiru enpresari gutxienez eskatuko zaie eskaintza.

Edonola ere, eskaintza enpresa bakar bati eskatu ahal izango zaio arrazoi tekniko edo artistikoak direla-eta, edo eskusibotasun eskubideak babesteko arrazoiak direla-eta, kontratua soilik enpresa jakin baten esku utz daitekeenean.

(ii) GOEIKIk kontratuaren edozein aspektu negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin eta negoziazioan zehar lizitatzailerekin tratu berbera jasoko dutela zainduko du eta ez du bereizkeriarik egingo informazioa ematean.

(iii) Kontratazioaren arduradunak eskaintzei buruzko balorazio informe bat egingo du, eta kontratua eskaintzarik onuragarrienari esleitzea proposatuko du.

(iv) Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta onartzeko zein baztertzeko arrazoiak jasota geratuko dira.

(c) **3. mailako kontratuak.**

Maila honetako kontratuak arau hauen arabera esleituko dira:

(i) Kontratazio prozedurari honakoak adierazten dituen txostenarekin emango zaio hasiera: kontratuaren bidez bete nahi den beharraren egiaztapena, kontratatu beharreko zerbitzuen edo ondasunen ezaugarri nagusiak, eta behar besteko kreditua dagoela egiaztatzen duen agiria.

(ii) Kontratatu beharreko ondasunaren edo zerbitzuaren ezaugarri teknikoei buruzko agiri deskriptibo bat egingo da, eta horri gehituko zaio baldintza berezien agiri bat, KBJ hauetako 9. Atalean adierazitako edukiarekin.

(iii) Publizitatea egiteko, lizitazio eta esleipen iragarkia argitaratuko da GOEIKIren kontratatzailearen profilean. GOEIKIrekin kontratua egiteko interesa duen lizitatzailer guztiek aurkeztu ahal izango dute euren eskaintza. Interesa daukaten lizitatzailerak eskaintzak aurkezteko duten epea kontratatzailearen profilean argitaratzen den lizitazio iragarkian ezarriko da (KBJ hauetako 9. atala).

(iv) Lehenik eskaintza teknikoak baloratuko dira. Bigarrenik, behin proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldia eginda, kontratazioaren erantzukizuna duen departamentuak/arloak eskaintzen txosten konparatiboa egingo du, baldintza berezien agirian ezarritako balorazio irizpideei jarraituz. Esleipena eskaintzarik onuragarrienaren alde eta ebazpen arrazoitu biden egingo da.

(v) Esleipenaren emaitzak lizitatzailer guztiei jakinaraziko zaizkie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, esleipendunari kontratua formalizatzerako eginez.

10.4. Diruz lagundutako kontratuak

Diru laguntzen bidez edo Sektore Publikoko antzeko beste diru sarrera batzuen bidez finantzatutako kontratuetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean, azaroaren 17koa, eta gaiari buruzko Estatuko edo autonomia erkidegoko gainerako arauetan ezarritako baldintzak beteko dira.

10.5. Kontratatzeke beste prozedura batzuk

SPKLTBn xedatutako esleitzeko beste prozedura batzuetara jo ahal izango da, baldin eta, betiere, horietara jo ahal izateko Legean ezarritako baldintzak betetzen badira, eta prozedura horiek lehia irekitzea dakartenean, eta ez lehia murriztea edo GOIEKIk jarraitzen dituen gainerako printzipioak murriztea.

11. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ETA EDUKIA

Kontratua agiri idatzi bidez formalizatutako da, oro har, lizitatzaileri esleipena jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta 15 egun balioduneko epean, eta betiere dagokien agiri edo eskaintzetan bestelako eperik zehazten ez bada. GOIEKIk kontratua formalizatuz adieraziko du bere kontratuzko adostasuna, eta horrekin kontratua burutu dela ulertuko da.

1. mailako kontratuetan, formalizazioa egiteko nahikoa izan daiteke dagokion aurrekontua bidaltzearekin, Gerentearen oniritziarekin.

2. mailako kontratuen kasuan, kontratua formalizatuko da, GOIEKI eta hautatutako hornitzailearen arteko “Eskaera onarpena” sinatzearekin, honakoa jasoko duena:

- a) Aldeen identifikazioa.
- b) Kontratuaren xedea.
- c) Prezioa eta ordaintzeko era.
- d) Kontratuaren iraupena.

3. mailako kontratuen kasuan, kontratuok honakoa jaso beharko dute:

- a) Aldeen identifikazioa.
- b) Kontratuaren xedearen definizioa.
- c) Kontratua osatzen duten agirien zerrenda.
- d) Egiatzko prezioa edo hori zehazteko modua.
- e) Kontratuaren iraupena eta hasteko eta amaitzeko kalkulaturako datak. Luzapenak eta horien datak, halakorik aurreikusita balego.
- f) Prestazioak jaso eta emateko baldintzak.
- g) Ordaintzeko baldintzak
- h) Kontratua suntsiaraztea eragin dezaketen kasuak.
- i) Kontratatari ezarritako konfidentzialtasun betebeharren norainokoa, denboran eta helburuetan.

10. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratazioaren alorreko jarraibide hauetan adierazten diren kontratuak prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta amaitzeari buruzko auziak ebazteko garaian, jurisdikzio ordena zibila izango da eskuduna.

